

HEZKUNTZA BEREZIKO LABORALAK ERE

MAIATZAK 25, GREBA

Estatu Espainolak aurkeztutako murrizketak eta Eusko Jaurlaritzak bereganatutakoek eragin zuzena izango dute hezkuntza premia berezien arretan. Zerbitzu publikoari begira ezarri diren neurri hauek aurkeztu baino lehen, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi zigun h.p.b dituzten ikasleen arretan murrizketak egongo zirela.

“Baliabideen optimizazioaren” nahian, Politika neoliberalen ezaugarri bat izanik, Hezkuntza Sailak inbertsio gehien behar duen ikasleriaren sektoreari berehala bota zion begia. Ingeleseko barnetegietan eta ordenagailutan gastatzen dutenaren alderantziz, Hezkuntza Sailak heziketa bereziko arretaren baliabideak ezin ditzake erabili kanpora begira saltzeko publizitate inbertsio gisa.

Eskubide sozialentzako eraso bortitza suposatzen duen murrizketa neurri multzoak ezarri baino lehen heziketa berezian egoera hau bazegoen, ez dugu zalantzarik ekainetik aurrera gertatuko denaren inguruan; erabat ziur gaude beraien ardura ez dela izango ikasle guztien heziketarako eskubidearen bermatzea.

Publikotasunaren suntsipenari begira ezarri diren neurri hauek, sektore publiko desberdinen lan hitzarmenen negoziaketan eragin zuzena izango dute, konkretuki Lan Legepeko Irakasle zein Hezitzaileen Lan Hitzarmenean. Krisi honetatik langileen kontura atera nahi dute eta krisiaren benetako errudunei milaka miloi euro ematen dieten bitartean, administrazio publikoentzat lan egiten dugunoi soldataren murrizketak eta ondorengo izozteak ezartzen dizkigute.

Gure esku dago Hezkuntza Saila gure eskubideak bermatzera eta Lan Hitzarmen duin bat negoziatzera derrigortzea. Langileek, gure eskubideen kontrako erasoan aurrean erantzun irmoak eman behar ditugu.

STEE-EILASetik Hezkuntza Bereziko langile guztiei maiatzaren 25ean antolatutako grebaldian eta manifestazioetan parte hartzera animatzen zaituztegu.

25ean, goizeko 10:30etan kontzentrazioak Lurralde Ordezkaritza bakoitzetik eta 11,30etan manifestazioak:

| | |
|------------------|-------------------|
| Bilbon | Gran Via, 25 |
| Araban | San Prudencio, 18 |
| Gipuzkoan | Andia, 13 |

Derechos sociales,
servicios públicos

M25 GREBARA!!